

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoak:

-Gure lana aurrera eramateko denda fisikoa (Dato kalean 44. zenbakian kokatuta egongo dena) beharko dugu. Horrez gain, bidezko merkataritzako lokaletan (Medicus mundi dendan, Pio XII.kalean kokatuta, adibidez...) gure produktuak eskainiko ditugu. Gure denda sortzeko makina erregistratzaile bat beharko dugu, erosketarako orgak, gure produktuak eskaintzeko apalak...

-Gure bezeroek Interneten bitartez produktuak eska ditzaten ordenagailu bat beharko dugu gure dendan. Haien etxeetara produktuak eramateko motorra bat beharko dugu, produktuak ahalik eta azkarren haien etxeetara hel daitezten.



Baliabide intelektualak:

-Gure marka "IRAL" erregistratuta egongo da Patente eta Marketaketako Erregistro Europarrean.

-Merkataritza abileziak bezeroak erakartzeko, mantentzeko eta haiekin komunikazioa bermatzeko.

- WWF eta Greenpeace gobernuz kanpoko erankudeetako laguntza gure produktuak ahalik eta ekologikoenak izateko.



Giza baliabideak:

-Iraide gure webguneaz arduratuko da, bezeroek dituzten zalantzak argitzen eta bezeroek eskatuko dituzten produktuen inguruan informazioa eskaintzen, Ane produktu horiek bezeroen etxeetan zehar banatzeaz arduratuko baita. Produktuak

gure dendara ailegatzeko, Anek produktu horiek eskaintzen dituzten saltzaileekin nahiz garraio enpresarekin akordioak egingo ditu. Iraide tailerrak prestatzeaz arduratuko da webgunearen bitartez. Denda fisikoan Alex kutxazain bezala egongo da, bera enpresaren kontabilitateaz arduratuko da eta sukaldatutako produktuak aurrez aurretik sukaldatuko ditu. Bestalde, produktuak gure dendan apaletan jartzeko, integrazio programa batekin kolaboratuko dugu eta arazo ekonomiko eta sozialak dituzten pertsonak kontratatuko ditugu.



Finantza baliabideak:

Gure proiektua finantzatzeko, bankuetan maileguak eskatuko ditugu (Bankian, BBVA...). Hori ez badugu lortzen, partaide guztien artean ahalik eta diru gehien inbertituko dugu gure enpresan.

The BBVA logo, consisting of the letters "BBVA" in a bold, white, sans-serif font, centered on a solid blue rectangular background.